



#DastatuMuseoa ZOZKETARAKO OINARRIAK

1. Erakunde antolatzailea: Igartubeiti Baserri Museoak (CIF B-20482303), Ezkiorako errepidea, z/g - 20709 Ezkio (Gipuzkoa), “Dastatu Museoa!; Saborea el Museo!” zozketa antolatzen du Museoen Nazioarteko Eguna 2020 ospatzeko asmoz, museoko RRSSen bitartez baita igartubeiti@gipuzkoa.eus helbidearen bitartez ere.

2. Parte-hartzea: Zozketan parte hartu ahal izango dute: benetako erabiltzaile perfila duten pertsona fisiko guztiak eta [@igartubeiti](https://twitter.com/igartubeiti) Twitter-eko jarraitzaileak. Zozketa honetan parte hartzeak oinarri hauen baldintzarik gabeko onarpen osoa dakar. Parte hartzaileak oinarri hauetako edozein beteko ez balu zozketatik kanporatuko genuke.

3. Sariak. Zozketara aurkezten diren errezeta guztien artean bi sari banatuko dira, Ezkioko Argindegi Ostaturako 60 €ko balea eta Bertatik Bertarako produktuez osatutako saskia 40 €takoa.

4. Zozketa: “Museoen Nazioarteko Eguna 2020” ospakizuna dela eta, Igartubeiti Baserri Museoak zozketan parte hartzeko gonbitea luzatzen du, arto irinarekin errezeta bat bidaltzea nahi dezuten euskarrian. Parte hartzaileak bere proposamena argitaratu beharko du Igartubeiti museoko RRSSetan #DastatuMuseoa hastag-a erabiliz edo igartubeiti@gipuzkoa.eus helbidera bidali.

5. Zozketa: Zozketa eta sarien izendapena 2020ko ekainak 1ean izango da. Irabazleen komunikazioa museoko sare sozialen bidez (Twitter eta facebook) egingo da.

6. Iraupena: 2020ko maiatzak 18tik proposamenak bidali daitezke 2020ko maiatzak 31ko 24:00ak arte.

7. Datuen babesa: Proposamena bidaltzean berau museoko Sare Sozialetan hedatzeko erabiliko dela onartzen da, Igartubeiti Baserri Museoa-Caserío Museo Igartubeiti, Ezkiorako errepidea z/g,- 20709 Ezkio. IFK B-20482303. Parte hartzaileak beraien datu pertsolekiko tratamenduan sarbide, zuzenketa, indargabetze eta aurkaritza eskubideak erabili ahal izango dituzte, igartubeiti@gipuzkoa.eus-era idatziz.